

Txillida Leku Museoa "Begientzako musika"

Eduardo Txillidak miretsi egiten zuen Joan Sebastian Bach. Konpositore alemaniarra bere kutuna zen, eta obra ugari eskaini zizkion. Aitaren estudioko argia piztu, eta Bachen musika entzuten zen musika aparailuan, gogoratu du Luis Txillidak. Txillida Leku museoak eskultoreak konpositoreari zion debozioa hartu du oinarri erakusketa berria antolatzeko. Bachi Omenaldia musika gaitzat duen erakusketa trilogiaren azken atala da. Olatuak bezain moderno, itsasoak bezain aitzinako. Beti inoiz desberdin, baina inoiz ez beti berdin, dio Eduardo Txillidak Bachi eskainitako liburuko gogoeta batek. Liburua 1997an argitaratu zuen Edouard Weissek, eta eskultoreak Bachen lanetan inspiraturiko serigrafia eta idazkiak batzen ditu. Lan horiek dira erakusketaren bizkarrezurra, eta jatorrizko berrogei orrialdeak launaka kokatu dituzte. Panelez gain sei eskulturak eta lau argazkik osatzen dute erakusketa, eta otsailaren 22ra arte egongo dira ikusgai.

Estela Solana da erakusketako komisarioa, Ignacio Txillidaren lankidetzarekin. Solanaren iritziko, Bach erreferentzia bat izan zen Txillidarentzat, eta eragin nabarmena izan zuen haren lanean. Harreman hori islatzeko liburua da eredu onena, eta orrialdeak launaka elkartzeak bere zentzua du. Multzo bakoitzak Bachen obra baten azala, partitura bat, lan horretan oinarrituriko serigrafia bat eta eskultorearen hausnarketa bat biltzen ditu. Komisarioaren iritziz, panel bakoitza solasaldi bat da, irudiek eztabaidatu egiten dutelako.

Solanak lau kontzeptu orokor erabili ditu erakusketa antolatu eta Bachen eta Txillidaren arteko harremana azaltzeko: sintesia, bariazioa, eraikuntza eta inprobisazioa; eta artelan bat da bakoitzaren adibide. Serigrafiak, adibidez, bariazioen eredu dira, sekuentzia antzekoa delako, baina lan bakoitza desberdina.

Eduardo Txillidak zioen Bach arkitektoa zela, denborarekin, soinuarekin eta isiluneekin eraikitzeke gai baitzen. Komisarioaren irudiko, Txillidak hutsuneekin ere egiten zituen eskulturak, eta hor egiten dute bat. Joera arkitektoniko hori irudikatzen du Joan Sebastian Bachen etxea (1981) eskulturak -erakusketan argazkia dago-. Eskultura sabairik gabeko altzairuzko tenplu bat da, eta Txillidak tamaina erraldoian eraikitzeke diseinatu zuen arren, egitasmoak ez zuen aurrera egin. Sintesia, berriz, Joan Sebastian Bachen omenez (1979) altzairuzko eskulturak islatzen du erakusketan. Eskultura Txillida Lekun ikus daiteke. Musika adituek musika sintesi eredutzat jotzen dute Bach, hainbat tradizio musikaletako iturrietatik edan zuelako. Komisarioaren ustez, Txillidak ere lengoaia pertsonal bat sortu zuen, bere kasuan, baina Euskal Herriko edo Grezia aurreklasikoko tradizioak, zientzia eta musika elkartuz.

Inprobisazioa da antolatzaileek Bach eta Txillida uztartzeko aukeratu duten laugarren kontzeptua. Biek bikain kontrolatzen zuten euren teknika. Txillidak eskultura bat hasten zuenean ez zekien nola irtengo zen, ideia bat bazuen, baina ez zekien azken emaitza nolakoa izango zen. Inprobisazioa irudikatzen du Bachentzako instrumentua (1996) granitoan eginiko eskultura erraldoiak. Erakusketan argazkia dago, eta organo itxura du, Bachen instrumentu gustukoena.

Txillida Lekuk musika hartu du ardatz 2009ko erakusketetan, eta Gune sonoroak eta Musika Isila-ren ondoren antolatu dute omenaldia. Izan ere, sortzeko garaian, musika inspirazioa baino gehiago izan zen Txillidarentzat, eta erakusketan irakur daitekeen bezala, eskultoreak doinuak ikusten zituen lanetan. Obrak esaten didana musika da. Musika da espazioan, burdinazko soinuarekin. Musika isila da, ez delako entzuten, baina ikus daiteke.